

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: PIANO 2020ko OTSAILAren 27a

2020ko OTSAILAren 27an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **piano** espezialitatean. Bertan Emmanuel Ferrer, Miguel Ituarte, Marta Zabaleta eta Gustavo Díaz-Jerez espezialitateko irakasleek parte hartuko dute, bai eta musikeneko ikasleek ere.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako piano ikasketak egiteko interesa duten ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten piano ikasleak

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldira etorri ahal izateko **erreserba aurrez egitea** ezinbestekoa da, gure webgunean eskura duzun **izen-emateko orriaren** bitartez.

GARRANTZIZKOA

Ikasle aktiboen kasuan, izena emateko orrian datu hauek eman beharko dituzte:

- ✓ Joko duten errepertorioa
- ✓ Zein irakaslerekin gustatuko litzaiokeen lan saio txiki bat egitea (aukera bat baino gehiago eman lehentasunaren arabera ordenatuta)

Jardunaldiaren helburua

- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenei eta datozen irakasleei informazioa ematea, goi-mailarako sarrera probei buruz, bertan eskatzen den mailari buruz eta errepertorio egokiari buruz.
- Proba hori gainditzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaindituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Jarduera-egitasmoa

9.00: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena. Espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldia. Berau osatzen duten irakasgaien deskribapena eta irakasleen aurkezpena. Sarrera-proben deskribapena. Eraikinari bisita gidatua.

10.00-11.00: Errepertorio Garaikidea irakasgaiaren inguruko saio praktikoa Ricardo Descalzo irakaslearekin.

Musikeneko piano irakasleek eskolak emango dizkiete ikasle aktibo modura izena eman dutenei.

11.00-15.00: Miguel Ituarte

11.00-15.00: Marta Zabaleta

15.30-19.30: Gustavo Díaz-jerez

Ordutegi hauetan irakasleek ikasle aktibo modura izena eman dutenei emango dizkiete eskolak. Horretaz gain, irakasleek Musikeneko ikasleei ematen dizkieten eskoletara joateko aukera ere izango da.

20.00: Musikeneko piano ikasleen entzunaldia.

Non

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Teklatu instrumentuak eta Kantua Departamentu Buruarekin: Javier Pérez de Azpeitia jperez@musikene.eus